



## LAN-LEGEPEKO HEZITZAILEEN 2022KO EPERi BURUZKO OHIKO GALDERAK

### - Nola garatuko da egonkortze-prozedura?

Hautatutako pertsonen behin-behineko ebazpenaren ondoren, alegazioak egiteko epe bat emango da, eta, ondoren, hautatutako pertsonen behin betiko zerrenda argitaratuko da. Hautatutako pertsoneri urtarrilean deituko zaie dokumentazioa aurkezteko, eta, fase horren ondoren, azterketa medikoa egin beharko dute.

### - Noiz uko egin ahal izango zaio esleitutako plaza bati?

Edozein unetan uko egin ahal izango zaio behin-behineko ebazpenaren eta lanpostuaz jabetzeko momentuaren artean. Hala ere, uko egitea hautatutako pertsonen behin-behineko ebazpenaren eta behin betikoaren artean egiten bada, plaza hori esleipenaren bigarren bueltan sartuko da; aldiz, uko egitea behin betiko ebazpenaren ondoren egiten bada, plaza hori erreserba-zerrendari esleituko zaio, eta puntuazioaren arabera dagokion lehen pertsonari esleituko zaio zerrenda horretan.

### - Zein da plazari uko egitearen ondorioa?

Uko egiten duen pertsonak ez du finkotasuna lortuko. EPEn eskaintzen den lanpostu huts batean badago, lekuz aldatuko da eta hautagaien zerrendara joango da. Lan-eskaintza publikoan eskaintzen ez den plaza batean badago, bitarteko langile gisa betetzen jarraituko du.

### - Noiz hartuko da lanpostua, egonkortze-prozesua amaitutakoan?

Kontratua formalizatzeko 2025eko irailaren 1etik aurrera izango ditu ondorioak; hala ere, ahal dela, oporrak hartu aurretik sinatuko dira, apiriletik maiatzera bitartean ahal dela.

### - Irailean esleitutako plazari uko eginez gero, zer gertatuko litzateke plaza horrekin?

Printzipioz, ez litzaioke erreserba-zerrendako inori esleituko, prozesua amaituta egongo baita.

### - Beharrezkoa al da altan egotea lan-kontratua sinatzeko, lan-legepeko finko bihurtzeko?

Ez, bajaran egon daiteke. Beharrezkoa da alta emanda egotea azterketa medikoa pasatu ahal izateko. Aldi horretan bajaran dauden pertsoneri azterketa hori egin arte itxarongo zaie.



**- Zer gertatzen da finkapena lortzen duten eta zentroz aldatu behar duten langileak ordezkatzeko kontratua duen pertsonarekin?**

Kontratuaren funtsezko aldaketa denez, ordezkoak bi aukera izango ditu: kontratuarekin jarraitzea eta lanpostu berrian titularra ordeztzen jarraitzea, edo kontratua etetea, inolako zehapenik ezarri gabe.

**- Beste administrazio batean lan egiten dutenek eska al dezakete eszedentzia?**

Pertsona horiek eszedentzia eskatu ahal izango dute beste administrazio batean lan egiteagatik. Eszedentzia horrek ez du lanpostua gordetzeko eskubiderik emango. Eskaera 2025eko irailaren 1etik aurrera egin beharko da.

**- Hautatutako pertsonen behin betiko ebazpenean plaza bat esleitzen zaien pertsonak eska al dezakete txanda-kontratua?**

Pertsona horiek 2025eko irailaren 1etik aurrera eskatu ahal izango dute txanda-kontratua.

**- Lanpostu-aldaketa 2025eko irailaren 1ean izango denez, 2025/26 ikasturterako, noiz jakingo da zein ikastetxetara joango diren hautatutako langileak?**

Urtero bezala, maiatzetik aurrera ikastetxeak esleitzeko prozesua egin beharko da. Ikastetxeen esleipen horretan, abenduko behin betiko zerrendan hautatutako pertsonak langile finko gisa parte hartuko dute, eta 2019ko ekainaren 4ko Aginduan ezarritako irizpideei jarraituko zaie. Plaza galdu duten bakantedunek COCUn parte hartu ahal izango dute.